

Amerikano Beltzak



I

Oi Amerikano beltzak
Iragaïten ditutze oren latzak
Zurien eskubide berdiñak
Nahi ditutze eta
Herioan edo kartzelan
Guzien saria...

Errepika

Beti jarraïki, beti aintzina
Gudian anaï zirezte guziak
Zuekin baïtago eskual herria
Gero hobeago baten begira

II

Oi Amerikano beltzak
Mundu zabalzabalean gudubera
Zonbat jendaldek ez deramate
Bizia eskaintzen dute eta
Herioan edo kartzelan
Guzien saria

Presondegietan

Ez egin espantu
Eskualdun anaïak
Zuen gatkan bainago
Presondegietan
Ibillia naute auzitegietan
Zuen gatkan...

I

Zangotaïk zintzilik
Eskutaik zintzilik
Gorputza odoletan
Minez nigar egin dut
Sofrikarioz nigar egin dut
Ez nuen zauritanminik
Nere bihotzean baïzik
Zure irriaren gatik
Zure trufaren gatik
Minez nigar, nigar egin dut

II

Zuk nere anaïa ikusi nuzu
Eta zer eran duzu ?
« Gure gatik ez zuen balio »
Minez nigar egin dut
Sofrikarioz nigar egin dut
Ez nuen zauritan minik
Nebe bihotzean baïzik
Zure irriaren gatik
Zure trufaren gatik
Zure ez balioren gatik
Minez, nigar, nigar egin dut

III

Zuk Arantxa, ikusi nuzu
Eta ixilik zira gelditu
Eta nigar egin duzu
Orduan nere bihotzeko minak
Nere gorpuzeko minak
Denak dira airatu
Orduan nere bihotza
Zait alegeratu
Eta goxotasun hartan
Nintzan lokartu